

ORTZADAR ARRAINA

Testua eta irudiak: **MARCUS PFISTER**

Itzulpena: **AINHOA IRAZUSTABARRENA**

Azal gogorrean koadernatua. 21,5 x 28 cm. 32 or. 16 €.
Irudi holografikoak azalean, kontrazalean eta barruko orrialdeetan.

CHRISTOPHER SARIA (1992, New York)
CRITICI IN ERBA SARIA (1993, Boloniako azoka)

Ortzadar arraina (euskara)

ISBN 978-84-9172-066-9. Gaur egungo klasikoak.

O peixe Arcodavella (galegoa)

ISBN 978-84-8464-417-0. Tras os montes.

O peixe Arco-Íris (portugeses)

ISBN 978-989-749-121-4. Clássicos contemporâneos.

Bazen behin oso urrun, itsaso sakonean, bizi zen arrain bat.

Ez zen arrain arrunta, inondik ere.

Ozeano osoko arrainik ederrena zen.

Bere ezkata-jantziak ortzadarraren kolore

*guztietako distirak zituen. Gainerako arrainek miresten zuten
haren ezkata-jantzi koloretsua...*


Bere ezkatzen distirak ura koloreztatzen zuen gainerako
arrainen ondotik igarotzen zenean, eta atentzia ematen zien.

Arrain guztiek miresten zuten eta haiekin jolasteko deitzen
zioten, baina ortzadar arrainak ez zien kasurik egiten.

Halako batean, dena aldatu zen: ortzadar arrainak,
mespretxu handiz, bere ezkatetako bat ukatu zion arrain txiki
urdirin bati, eta harrezkero denek bizkarra eman zioten
eta ortzadar arraina bakarrik eta triste geratu zen.

Olagarro jakintsua izanen da adieraziko diona zein den bidea
hasiera batean bere jarrera harroarekin ukatutako
adiskidetasuna lortzeko. Izan ere, ez da zoriontsuago gehien
nabarmetzen dena; aldiz, benetako edertasuna barruan dago.
Apaltasuna, eskuzabaltasuna eta zintzotasuna dira norberarekin
eta besteekin harmonian egoteko gakoetako batzuk.

«Ortzadar arraina» gonbidapen bat da -mundo osoan txaloturiko
istorio honetako protagonistari gertatzen zaion moduan-,
gure barruan “zerbait arraroa” sentitzeko, daukaguna konpartitzen
dugunean. 1992ko klasiko bat da, orduan bezain distiratsu
jarraitzen duena. Akuarela argitsuak ditu, bizitzaz eta kolorez
beteriko itsas hondora eramanez gaituztenak.



- **Gala:** eskuzabaltasuna, apaltasuna, adiskidetasuna.
- **Zein adinetarako:** hiru urtetik gorakoentzat.
- **Nabarmenezkoak:** haur-literaturako klasiko; alegia modernoa; itsasoko izakiak; heziketa emozionala, konpartitzea; jarrera negatibo eta positiboen arteko kontrastea.
- **Liburuaren lagina:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/ortzadar-arraina-eusk>

Marcus Pfister

(Berna, 1960)

Bernako Arte Eskolan ikasi zuen eta publizitate agentzia batean hasi zen lanean diseinatzaile grafikoa gisa. Estatu Batuetan, Kanadan eta Mexikon zehar bidaiatu ostean, Suitzara itzuli eta ilustratzaile ibilbideari ekin zion. 1986an bere lehen liburua argitaratu zuen, eta sei urte geroago argitaratu zuen «Ortzadar arraina», bere nazioarteko arrakasta handia, zeina mundo osoan 30 milioi aletik gorako salmentak izan dituen liburua bilduma bilakatuko baitzen. Telebistarako marrazki bizidunen moldaketa bat ere egin zen. Harrezkero berrogeita hamar liburu inguru argitaratu ditu eta hizkuntza askotara itzuli dira. Asia, Amerika eta Europan barrena ibili da bere lana ezagutarazten. Askotariko teknika eta estiloak landu ditu, bi amaiera desberdineko istorietatik hasita orri zatituak dituzten liburua eta «Ortzadar arraina» lanean agertzen diren irudi holografikoetara. Liburu honengatik jaso ditu, besteak beste, Christopher Saria (1992, New York), Kate Greenaway Sarirako izendapena (1993) eta Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Azokako Critici in Erba Saria (1993).
<http://www.marcuspfister.ch>

www. **kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**.com
etxea
soltxate@pamiela.com